

IRAKASLEAK

• **EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.**

2021eko ekainean hasiko dira oposizio-faseko probak.

- **Idatzizko froga:** Ekainaren 19 eta 20an BECen.
- **Ahozko defentsa:** Irailaren 6tik aurrera.

• **ORDEZKAGUNEA.**

Plataformako **gida eguneratu dute**. Ez erabilgarri jartzea arrazoitzen duen dokumentazioa, aplikazio bertatik bidali behar da. [Gida eskuragarri.](#)

IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

• **MARTXOKO NOMINA.**

Martxoko nominari, urte hasieratik izandako soldata igoeraren atzerapenak gehitu beharko dizkiogu. Urtarrilean aplikatutako %0,9ko igoera, martxoan hasiko gara kobratzen.

-**Irakasle funtzionarioen** soldaten taulak eguneratuta. [Argitalpena.](#)

Nomina 2021ko igoera aplikatuta, steilas.eus helbidean eskuragarri.

-**Heziketa Bereziko Hezitzaileen** soldaten taulak eguneratuta. [Argitalpena.](#)

HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

• **LEKUALDATZE LEHIAKETA.**

Onartutako eta baztertutako parte hartzaileen behin betiko zerrendak argitaratu dituzte. Kontsultak irakasle.eus helbidean.

Lekualdatze lehiaketako **ebazpena martxoaren 29an** argitaratuko dute.

Erreklamazioak: martxoaren 30etik apirilak 12ra arte, biak barne.

**HEZKUNTZAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA JAITSI
ETA LANPOSTUAK EGONKORTU!!!**